

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miel Arrieta Bideburu

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1931-2020)*

Aurkibidea



Biografia



Urnietako Goiburu auzoko Legarralde baserrian jaio zen. Zortzi senidetan gazteena zen eta gogoan du nola joaten zen bere aitarekin ardiak zaintzera Arano aldeko mendietara. Ostarbeko etxola zuen izena mendian zuten artzain-borda hark eta aitona eta aita bezala bera ere artzaina izan zen harik eta artzaintzarako baliatzen zituzten mendi haietan pinu-landarea sartu zuten arte. Artzaintzaz gain, basolaneari ere ibili zen, Andoaingo telleri-fabrikan eta azkenik Donostian lorategi zaintzen ere bai.

Zintak

URN-012

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-01-14
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

URN-030

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa - Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-04-27
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Aita artzaina eta Miel hari laguntzen ibilia

- **Erref:** URN-012/002
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Aita artzaina zen: udaberrian ardiak etxean egoten ziren, baina gainerakoan mendian. Ardien esnearekin gazta egiten zuten. Aitak 20 egun inguru pasatzen zituen etxolan ardiekin, eta Miel ere harengana joaten zen batzuetan. Etxolan nola egiten zuten lo azaltzen du.

2. Ordua artizarrari galdetzen

- **Erref:** URN-012/003
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:05:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Aita beti mendian ibilia zen, eta artizarrari begiratuta orientatzen zen zer ordu zen jakiteko.

Transkripzioa

-Ta orduik ez, baiño gue atta zana hortan gizon zea zan, beti mendin hortxe ibilliya ta, goizaldea hua esnatzen zan eta ateako zan kanpora ta begiratuko zun eta ba: "eguna laxter diau, jaiki biharko, esaten zian, artizarra etorri dek, parian diau". Artizarra, izar haundi bat. Hoi beste izarrak baiño haundiyua ikusten zan gue begiratun eta harrekin hartua zakaten zea, been jaikitzeo... Etxolaberri aldetik edo Arano aldetikan edo bazetorren txabolan pareo edo. Behintzat horrea agertzen hua eta. Hua hor zanian ya euna, euna.

-Hara!, ze politta!

-Artizarra etxolaren pareo...

-Pareo etorri zan garaiyeen euna ordu erdi bat barru edo ya zabaltzen hasiya edo gehixeo.

3. Mendien "jabeen" jokaera

- **Erref:** URN-012/004
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Etxolan zeudenean, jaiki eta beste mendi batera joaten ziren oinez ardiekin. Inguru haietan artzain asko egoten zen, mendi ona baitzen. Lursail batzuk Astigarragako gizon batenak ziren, eta artzainek han egoteagatik ordaindu egin behar izaten zioten. Mendiaren "jabeen" artean ika-mikak egon ziren.

4. Etxolatik irteteen egiten zituzten lanak

- **Erref:** URN-012/005
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:09:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Etxolatik irtetean, zer lan egiten zuten azaltzen du.

5. Erlezaintzan ere lehen errespetu handia erleari

- **Erref:** URN-012/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:09:26. **Bukatu:** 00:12:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Bi anaiari buruzko istorioa kontatzen du: batek ardi asko zituen, besteak behiak. Anaia bat hil zenean, bestea artzaintzan sartu zen; erlezaintzan ere aritzen zen. Erleei ezia kentzen hasi zen batean esandakoa kontatzen du. Norbait hiltzean, erleei baimena eskatzeko ohitura zegoen, argizariarekin kandelak egiteko. Lehen naturari errespetu handia zitzaion.</p>

6. Tabernariak bezeroa ardo bila bidali zuenekoa

- **Erref:** URN-012/008
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:13:18. **Bukatu:** 00:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Lehen ikazkin asko zeuden; "Etxola berrin" elkartzen ziren. Oiartzuar bat han egoten zen, eta behin "Etxola berriko" nagusiak ardo bila bidali zuen; bi egun eman zituen kanpoan, eta dirua bukatutakoan itzuli zen.

7. Errotak itxita zeuden garaian, Aranoko errotara joandakoa

- **Erref:** URN-012/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:18:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Arano ondo ezagutzen du Mielek. Errotak itxita egon ziren garaian, Aranoko errotara joan izan ziren. Hara joateko zer bide egiten zuten azaltzen du. Aranoko jendearekin harremana izan du.

8. Aranoko ekonomia, ikatza eta mandazaiak

- **Erref:** URN-012/010
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:18:11. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Arano artzain-jendeak sortutako herria omen da. Artzaintza eta basoko lana izango ziren garai bateko Aranoko ekonomiaren oinarria. Ikatza egitea gauza polita zen, mandazainak jaisten zuen ikatza; mandazaina etortzen zenean, nolako soinua egiten zuen gogoan du.

Transkripzioa

-Esaten da Arano artzai jendiak sortutako herria omen dala.

-Bai, hala izango da; bai, nei hala iruditzen zat. Zeatikan hor artzaiya, gaiñentzian han zer izango zan ba? Fabrikik-eta ezer ez zan eta garai haitan eta. Hoixe. Hoi dudik ez ein, Arano artzaiya ta basua. Artzaintza ta basoko lana. Iketz itten edo. Ordun iketza ere asko itten zan. Hoi're gauza politta zan oso, zea, iketz-ittia ta. Goizian mandazaiya, hor Bentaberriko ondu hortan pagua hor do, han pasako ziñen Aranotik etorri bazea ta. Handikan manduakin Antxistara igual; eguna zabaltzeako etortzen zan mandazaiya. Kanpanillak eta jarrita eukitzen zittuen, koskabilluak esaten zaio, holako borobil batzuk burni ttiki bat barrun duela ta, manduan pausuakin ttir-ttirrit, ttir-ttirrit, soiñua earki ateatzen zun eta kanpanilla're bai eta oso soiñu politta. "Joe, mandazaiya hemen dek". Gu're gue attakin, goiz jun bihar izaten zan mendiya ta. Hara goazela eguna artian zabaltzeko, gue etxetikan Antxistara bi orduko bidia zeon. Bi orduko bidia, ta etxetik ateatzen bagiñan lautan ba seitako hara, eguna zabaltzeako. Udaran euna seiak aldian zabaltzen du ta. Mandazaiya ordun hor izaten zan. Han etortzen zan bee manduakin; manduan gaiñian jarri ta goiz asko. Baiño oso gauza politta.

-Mandazaiyak zertan ibiltzen zian?

-Mandazaiyak iketza jexten zuen, txondarrak itten zittuen hor, ta txondar asko. Ikazkiñak hor gaiñea ezautu dittut arranoarrak'e. Txurdangitarrak eta, Txurdangi aittona ta semiak eta. Abolakuak'e bai, Abola errota baiño behero do, eta Abolakuak'e bai. Benardo zun izena aitonak eta. Hua're semiakin. Ta ni mutil-koxkorra aittai segika ta anaiai segika. Zortzi bat urte ezkerro noiznahi Antxistan barrena juten nitzen. Ta hoik iketz itten aitzen zian eta iketza horrea behera jexten zuen. Manduakin jexten zuen. Ta geo oiarzuarrak'e aittu zian, haik gaiñea oiarzuarrak urtiak pasa zittuen, bi-hiru urte igual. Oiarzuarrak eta lesakarrak zien. Haik onak, jatorrak zien oso.

9. Txondorren egitura eta funtzionamendua

- **Erref:** URN-012/011
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:20:49. **Bukatu:** 00:23:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza egitea gauza polita da: behin ikatza egiten ari zen bati ikatza ondo errez gero zer gertatzen zen galdetu zioten. Txondorra nola egiten den eta nola funtzionatzen duen azaltzen du.

10. Txondorrak non egiten ziren

- **Erref:** URN-012/012
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Hainbat lekutan ikusi izan ditu txondorrak. Baso-sail batean jartzen zituzten txondorrak. Ikazkinek leku txarretan egiten zuten lo.

11. Lehen baino zuhaitz gehiago orain basoetan

- **Erref:** URN-012/014
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:26:07. **Bukatu:** 00:27:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Bere ustez, lehen ez zegoen gaur egun adina zuhaitz Urnieta inguruan. Gaur egun egurra ez da horrenbeste saltzen. Nolanahi ere, zuhaitz asko egoteak mesede egiten du.

12. Katona: urtetan eskolatan erabilitako liburua

- **Erref:** URN-012/016
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Zazpi urterekin hasi zen eskolan. Katona erabiltzen zuten ikasteko. Katonari buruz Txirritak bota zuen bertsoa kantatzen du.</p>

13. Eskolako maistra eta hari zitzaion errespetua

- **Erref:** URN-012/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:28:43. **Bukatu:** 00:30:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Urnietako eskola utzi eta Hernanira joan zen ikastera. Garai hartan ez zekien gaztelaniaz. Tolosako maistra zuten: ona baina gogorra zen, eta denek zioten errespetua. Etxekoak maistraren alde jartzen ziren.

14. Ume bihurria izandakoa

- **Erref:** URN-012/018
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:30:33. **Bukatu:** 00:31:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Miel oso bihurria zen umetan. Amak esandakoa egin nahi izaten ez zuenean, onera ez bazen txarrera bete egin behar izaten zuen. 17-18 urterekin baretu egin zen.

15. Eskolara joateko aukera izan, eta gerora aitari laguntzen aritua

- **Erref:** URN-012/019
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:31:54. **Bukatu:** 00:33:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Arriazuko eskolan ibili ostean, klase partikularretara joan zen. Etxeko senideen artean, eskolan gehien ibili zena bera izan zen. Gerora, aitari ardiekin laguntzen aritu zen: ardiak jezten, gaztak egiten...

16. Gaztak egiteko prozesua

- **Erref:** URN-012/020
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:33:03. **Bukatu:** 00:37:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gazta nola egiten zuten azaltzen du; gatzagia nondik lortzen zuten aipatzen du. Gazta hobeto egiteko, gatz-ura botatzen zioten.</p>

17. Ardien faseak

- **Erref:** URN-012/022
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:38:44. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardiak hazten doazen heinean, hainbat garai pasatzen dituzte: bildotsak, arkazteak, arkumeak, artantzua...</p>

Transkripzioa

- "Bildotxa" da oain udaberrin jaiotakua, lehengo udaberrin jaiotakuak oain haik bildotxak dia, bildotxak ia arkazte ingo dia belaxe. Kanpazio bateako, ordun martxuan jaiotzen zien arkumiak, eta hurrungo martxo arte bildotxak zian haik. Baiño hurrungo martxuan hasten zian berrik jaiotzen ta haik arkumiak edo bildotxak, eta aurreako ordun uzten zian, ta haik arkaztiak.

- Urtebete einda...

- Urtebete einda handik aurrea arkaztiak. Ta gero hiru urtekuak. Laukuak eta geo ba hortikan aurreako zeak. Baiño hoi hola izaten da. Bai, bai, bildotxak. Oain urte guzin jaiotzen aitzen dila uste det eta. Behintzat eguberritako baiño lehenore arkumiak eta kenduk eta izaten dittue.

- Artantzua adibidez noiz izaten da?

- Artantzua're hoi da, guk arkaztia esaten diou, baiño artantzua're horri esaten zaio leku batzutan, Aranon hala esango die gaiñea seguru asko. Arkaztia ta.

18. Ardi hobeak izateko modua

- **Erref:** URN-012/023
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:42:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardi hobeak izateko "peakatu" egiten zituzten. Nola egiten zuten hori azaltzen du.</p>

19. Ardien jatena eta haien kalitatea

- **Erref:** URN-012/024
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:42:01. **Bukatu:** 00:43:29

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardiei jateko zer ematen zieten azaltzen du: artoa, babarrun-azalak... Behiek belar-ondoa jaten zuten. Ardi gogorrak ateratzen ziren garai hartan.</p>

20. Mendia nolakoa, ardia halakoa

- **Erref:** URN-012/026
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:44:19. **Bukatu:** 00:45:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Mendiak garrantzi handia du ardiak onak izan daitezen. Mendi onak nolakoa behar duen izan azaltzen du.</p>

21. Basoa hazteko, ardiak urruti

- **Erref:** URN-012/027
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:45:27. **Bukatu:** 00:47:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardia larrean dagoenean, babeslekuak behar izaten ditu: arbolapean, harkaitzaren ondoan... Zuhaitzak botatzen zituztenean, eta berria hazten zenean, ardiek gustura jaten zuten hura; eta aita beldurrez egoten zen orduan, basoa desitxuratuta uzten zutenez, norbait kexatu egingo zelako. Ardiak ez dira lagungarriak izaten basoa haz dadin.</p>

22. Umatzen ziren ardiak vs ardi antzuak

- **Erref:** URN-012/028
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:47:41. **Bukatu:** 00:48:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardi asko izaten zituzten: 80-85 ardi inguru umatzen ziren, baina antzuak ere asko izaten ziren.</p>

23. Arkumeen salmenta lehen eta orain

- **Erref:** URN-012/029
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:48:44. **Bukatu:** 00:50:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Arkumeak Hernanin saltzen zituzten. Ardi onenak aurrerago saltzeko uzten zituzten; zikiroek salmenta ona izaten zuten. Ardi zaharrak lehen garestiak izaten ziren, baina gaur egun ez.</p>

24. Artileak estimazio handia lehen

- **Erref:** URN-012/030
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:50:54. **Bukatu:** 00:52:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Artileak estimazio handia izaten zuen lehen: koltxoiak egiten ziren, hariak... Koltxoi haiek lana ematen zuten, urtero askatu, jo eta josi egin behar izaten baitziren.</p>

25. Mendiaren jabeak historian zehar

- **Erref:** URN-012/031
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:52:12. **Bukatu:** 00:55:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

<p>Umetatik 23 urtera arte artzaintzan ibili zen Miel. Gerora, 27 urte zituela, saldu zituzten ardi gehienak, mendian pinu-sail ikaragarriak sartu baitzituzten. Mendiaren jabetzari buruz hitz egiten du. 1956ko izozte handian, zuhaitz guztiak ihartu ziren.</p>

26. Saroiak eta larreak

- **Erref:** URN-012/032
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:55:58. **Bukatu:** 00:59:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Lehen inguruko mendietan animalia ugari zeuden, baina pinuak daudenetik ez. Saroi asko zeuden lehen. Lursailak nola mugatzen ziren azaltzen du. Saroiaren eta larreen arteko aldeak hitz egiten du.

Transkripzioa

-Ta hor ardiya ta betizua ta danetik; bihorra-ta hazienda ikeragarri izaten zan. Dana josiya mendi guziya garai hartan. Oain piñua do ta hazienda're gutxi ta.

-Lehen iratzetara, iñestorra edo nola esaten diozue...

-Bai, joe

-Zilegia ere bazen.

-Ez zan ezerre gelditzen hor. Ezta ezer 'e. Hor sarobiak zauden, sarobiak. Gue etxia're sarobia da. Terrenu horren erdin zeon. Erdin ez, dena barrenen. Gue etxia sarobia, Legarralde sarobia da. Esango dizut gaiñea, sarobiak asko zauden hor: Mendaiyo sarobia, Oilalumeakua, hor taberna daon hortakua; Olaberri sarobia, Olazarkua ta Ardegikua; Korostarben inbiriyan sarabia hua ere; ta Amuela, oain Beraziartua edo hoina, hor serrerik eta dauzkenhoina, hua're sarobia; Antxusta sarobia; Esolamaki sarobia; Zuluta sarobia ta Legarralde sarobia. Hoik zian hor barren hortan zeenak, baiño hoik terreno partikularrak zian danak. Zero bat da; ze esango dizut, hirurogei milla metro edo hola bakoitza hola izango zian, baiño zero borobillak die, gurea hala de behintzat eta bestiak hala izango dia; borobillian, erdi-erdin "altamugarriya" gure etxian han do, altamugarriya bada. Mugarria harri haundi bat da, altamugarriya esaten geniyon behintzat guk hari. Ta hua erdi-erdin gora ta beheara neurtu, horrea, bakizu, gurutzian neurtu ta denetara igual bihar emen du. Neurriya hua zan.

-Ta errondako hoi zeozekin mugatuta zeon?

-Bai, bai, mugatuta hor hoikin, Zilegi mendi horrekin. Zilegiya.

-Hesia edo pareta edo...

-Ez. Pareta bai, leku batzuetan bai baiño. Ez, ez zun, guriak ez zun zeikan. Guk itxi gendun geo. Lehen dena libre zan baiño zeak, hoik piñua sartu zuenian ardi batzuk utzi genittun attangatik, esan dizut, eta ordun itxi in gendun. Guk terrenua bagendakan larria're pixkat eta hua ta, itxi in gendun geon partia. Baiño lehen dena libre. Lehen dena libre. Zuluta're sarobia, hua're itxiya, jakiña, sarobia itxi iten da. Buelta guzian haziendak zazkan harrek'e eta, baiño gue etxe alde hortan negun edo izaten zan baiño. Belaziak eta itxi, jakiña, belaziak eta sorua ta hoik, baiño gaiñentzian ixtura zeik ez, partikularrik ez.

-Ta ze diferentzi zeukan zillegiaren barrenian sarobiak? Zer zan, terreno diferentziak edo?

-Igual-iguala. Jakiña, gu han bizi giñan eta hua landua ta artsorua eta belaziak eta hola. Bestia larria ingurukua. Garua. Garua edo iratzia edo kristua ta; iñastorra ta. Gaiñentzian hoixe, Zulutan'e bi fameli bizi zian eta, han'e hoixe do, han'e buelta guzin itxiya. Esolamaki, haik bordak eta zittuen tokiya Antxusta aldea ta. Hua ez, hua libre, han ez zeon belazeik eta ezer ez zaken, garua besteik ez zaken han. Borda, eta gaiñentzian ezer ez eta. Altxusta're baserriya. Baserriya izango bazendun hua zeatu biharra zeon, itxi biharra zeozker, baiño ixtura partikularrik ez. Guk ez genun. Ixtura

partikularrik ez zan gue etxian. Geo azkenian bai, azkenian itxi gendun etxeko ardik eukitzeagatik. Ta hola.

-

27. Lanean batean eta bestean bizi guztian

- **Erref:** URN-012/035
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 01:01:27. **Bukatu:** 01:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Etxeginak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

23 urterekin artzaintza utzi zuenean, Urnietako hondar-harrobian hasi zen lanean. Geroago, basora joan zen lanera; Erreterian 3 urte zerrategi batean ibili zen; Andoaingo teila-fabrika 22 urte pasa zituen; eta Donostian lorezain egon zen 13 urte. Donostian lanean oso gustura egon zen.

28. Harrobiko lanaren nondik norakoak

- **Erref:** URN-012/036
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:04:04. **Bukatu:** 01:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Urnietako hondar-harrobian 16 lagun aritzen ziren lanean. Han zer lan egiten zuten azaltzen du. 3 urte eman zituen han, eta 60 duro irabazten zituen astean, baina asegururik ez zioten ordaindu.

29. Basoko eta Erretereriako lana

- **Erref:** URN-012/038
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:06:29. **Bukatu:** 01:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Basoan bi lagun hasi ziren lanean. Ondo ibili ziren han. Gerora Erretereriara joan zen lanera, apopilo ibili zen han eta etxera larunbatetan etortzen zen.

30. Teila-fabrikako beroa eta zereginak

- **Erref:** URN-012/039
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:07:35. **Bukatu:** 01:10:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Teila-fabrian 22 urte egon zen lanean. Han bero ikaragarria egiten zuen, eta udan oso gaizki pasatzen zuten egun batzuetan: 60 gradurekin aritu izan dira han lanean. Lan hartan zer egiten zuten azaltzen du. Lan-baldintzak hobetzen hasi zirenean, fabrika itxi egin zen eta langabezia geratu zen 50 urte zituela. Fabrikako nagusia gizon portatu zen.

31. Festatara hara eta hona joandakoa

- **Erref:** URN-012/041
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:11:02. **Bukatu:** 01:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Gazte garaian festatan ibilia da Miel hainbat lekutan. Neska-laguntzak izaten ziren orduan. Dantzan gustura aritzen ziren, soltean eta lotuan. Aranora ere joan izan dira festetan: joan oinez eta buelta kamioi gainean egin zuten behin.</p>

32. Etxez etxe ardi-mozten

- **Erref:** URN-030/003
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:03:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Aita ardiei ilea moztera joaten zen etxerik etxe. Debalde egiten zen lana omen zen.

33. Aitak taloak eskuz

- **Erref:** URN-030/004
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Aitak taloak eskuz egiten zituen, garai batean egiten omen zen bezala.

34. Ama gaixoei eta erditzeetan laguntzen

- **Erref:** URN-030/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:05:12. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Amak gaixo askori laguntzen zien. Erditzeetan ere ibiltzen zen. Meliton izeneko medikua zegoen herrian, baina urrutira ez omen zuen joan nahi izaten askotan.

35. Bataiatu gabekoentzat hilerrian leku berezia

- **Erref:** URN-030/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Umea berehala bataiatu behar izaten zen. Hilerrian bataiatu gabeentzako leku berezia egoten zen.

36. Atsolorra hitzaren esanahia

- **Erref:** URN-030/008
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

Atsolorra egiten zuten, umeak hilabete izan orduko. Merienda egiten zuten emakumeek, ardo eta guzti. Izenaren esanahia azaltzen du: "lorrian" eramatea, arrastaka eramatea denez, noizbait atsoren bat "lorrian" eraman izanagatik sortutako izena dela dio.

37. Aita-amen zortzi eguneko ezteiak

- **Erref:** URN-030/009
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:11:22. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Umea jaiotakoan ez zela oparirik egiten uste du. Aita-amak ezkondu zirenean, zortzi eguneko ezteiak eman omen zituzten etxean. Jan-edana eta musika eskaini zituzten denentzat. Soinujolea Muntto izan zen. Anekdotak bat kontatzen du.

38. Osaba itsua etxean

- **Erref:** URN-030/010
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:17:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Osaba itsutzen hasi eta guztiz itsutu zen. Etxean hartu zuten. Egurra moztu eta etxera ekartzen ere aritzen zen. Anekdotak bat kontatzen du.

39. Osaba itsua, lanean gogor

- **Erref:** URN-030/011
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:17:51. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Osabak, itsua izan arren, asunak moztzen zituen igitaiarekin. Gizon gogorra omen zen. Osabari egindako bihurrikeria kontatzen du.

40. Osaba itsua makilarekin beti

- **Erref:** URN-030/013
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:26:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Osaba itsua zen eta makila erabiltzen zuen. Ahotsetik ezagutzen zuen jendea. Bihurrikeriak egiten zizkion jendeak mendian.

41. Abarka-sokak artile beltzarekin

- **Erref:** URN-030/014
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:26:11. **Bukatu:** 00:29:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Etxean erabiltzen zuten txabila aitonaren aitarena zen. Haria egiten zuen bere aitak, abarka-sokak egiteko. Artile beltzarekin egiten ziren. Bartolo artzainak egindako abarkak erakusten ditu.

42. Larruzko abarkak nola egiten zituzten

- **Erref:** URN-030/015
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:29:38. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Behi-larruarekin egiten dira abarkak. Nola egiten zituzten zehatz azaltzen du. Abarkak eskuan dituela ematen ditu azalpenak. Kotxeen gurpilekin egindako abarkak asko erabiltzen ziren, nahiz eta oso deserosoak izan.

43. Amantarrak nola jantzi

- **Erref:** URN-030/016
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Amantarrak nolakoak ziren eta nola jantzten zituzten azaltzen du zehatz. Pasarte bat kontatzen du.

44. Erlauntzak basoan

- **Erref:** URN-030/018
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Eutzak (erlauntzak) nola egin zituen kontatzen du zehatz. Barrena hutsa zuen enborra erabili zuen. Ordukoa kontatzen du.

45. Eztia ateratzeko prozesua

- **Erref:** URN-030/019
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>"Putximenta" izeneko tresnarekin ateratzen zuten eztia erlauntzatik. Abaraxka ateratzen zuten. Nola egiten zuten azaltzen du. Abaraxkari eztia sutondoan ateratzen zioten, estutuz, eta ondoren trapu batean iragazten zuten. Argizaria kandelak egiteko erabiltzen zuten.</p>

46. "Bertan-bertan" esaera erleentzat

- **Erref:** URN-030/020
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

"Bertan-bertan" esaten zioten erle-semeari erlauntzan sartzeko. Pinudiengatik erleek ez zuten izaten erlauntza non egin.

47. Erleekiko zaletasuna familian

- **Erref:** URN-030/021
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:44:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Aitonak erleak zituen eta lurrezko ontzietan gordetzen zuen eztia. Aitari eta berari erlearen ziztadarengatik gorputza handitzen zitzaiela dio. Pasarte bat kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com